



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

Urteko Txostena 2008

Q/53/2008 eskaera

EBAZPENA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO EFENDATZAILEARENA, ASEGURO ETA BERRASEGURUEN IGUALATORIO MÉDICO QUIRURGICO SAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN TRATU BERDINTASUNAREN PRINTZPIOA URRATZEN DUELA ETA ZU ZENEKO DISKRIMINAZIOAN ERORTZEN DELA EBAZTEN DUENA.

Aurrekariak

Lehen.- 2008ko irailaren 8an, _____ andreak (NAN: _____) kexa aurkeztu zuen "Igalatorio Médico Quirúrgico" aseguru medikoen entitatearen aurka (hemendik aurrera: IMQ), Urrezko polizaren 2008ko Baldintza Orokorretan bildutako laguntza bidezko ugalketari buruzko klausula, ustez, diskriminatzailea delako, honako hauek oinarritzat hartuta:

IMQ 2007-2008 urtean hasi zen hazijartzea eta in vitro ernalketa eskaintzen bikotearen antzutasuna edo ugalkortasunik eza tratatzeko, honako baldintza hauek betetzen zituzten aseguratuei: bikoteko 1bi kideak Urrezko polizan aseguraturuta egotea, 18 hilabeteko gabealdia gainditu izana, kirurgia antikonzeptiborik (basektomia edo tronpen lotura) jaso ez izana eta emakumea 42 urtez azpikoa izatea.

_____ andrea IMQko aseguraturua da 2003-2004 urtetik, une honetan ez du bikotekiderik, eta laguntza bidezko ugalketa jaso nahi luke; alabaina, polizaren estaldura baliatzeko aukerarik ez du, osasun-prestazio hori aseguraturutako bikoteei bakarrik eskaintzen dietelako. _____ andreak klausula hori diskriminatzailea ote den planteatzen du, laguntza bidezko ugalketaren (emailearen hazi-jartzea) beharrean egonik, bikotekiderik gabeko emakumea delako estaldura ukatzen diotela aintzat hartuta. _____ andreak honako dokumentu hau erantsi zuen:

- Bikotekiderik gabeko emakumezko aseguratuaren kasuetarako laguntza bidezko ugalketarako polizaren estaldurari buruz IMQri e-mailez egindako kontsulta (2008/08/13).

Bigarrena.- 2008ko urriaren 6an, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako defendatzaileak ikerketa-prozedurari hasiera emateko erabakia hartu zuen eta alderdiei jakinarazi zien, eta 15 eguneko epea eman zien egokitzat jotzen zituzten alegazio eta informazio guztiak aurkezteko.

Hirugarrena.- 2008ko azaroaren 7an, IMQ sozietateko zuzendari nagusi eta lege-ordezkarri _____ jaunak alegazio-idazkia bidali zion Berdintasunerako Defentsa Erakundeari, eta, hartan, honako hauek adierazi zituen:

"BAKARRA. Lehenik eta behin, aseguru-konpainiak argi eta garbi adierazi nahi du bete-betean errespetatzen duela aseguratuak askatasun osoz egindako aukera: ugaltzeko erabakia hartzea, gizonetzko batekiko afektibitate-harremanetik kanpo. Laguntza bidezko ugalketa-teknika modernoek eskertzen eta bizi garen lege-testuingurua kontuan hartuta, aukera hori hor dago gaur egun, eta baliatu egiten da gainera.

Hortik aurrera, guk (aseguratzaileak) eta salaketa aurkeztu duen andreak (aseguraturak) sinatu dugun kontratuaren edukia interpretatu eta aplikatzera mugatu behar da gure eginkizuna.

Horren ildotik, urrezko modalitatearen gure polizaren baldintza orokorretan (VI. atala: "bestelako zerbitzuak"), "laguntza bidezko ugalketa" idazkunaren azpian, hazi-jartzearen (3 saio) eta in vitro ernalketaren (2 saio) estaldura jaso da, honako baldintza hauen eraginpean:

(i) Antzutasunarekin edo ugalkortasunik ezarekin zerikusia duen arazoa ageri behar da. Gure polizak osasun-arazoa izateko arriskua estaltzen du, hau da, emakumearen haurdun geratzeko ezintasuna, haren edo haren bikotekidearen patologia dela medio



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

gerta daitekeena.

(ii) Bikoteko bi kideek konpainian aseguraturuta egon behar dute, eta biek ere gabealditik (18 hilabete) kanpo behar dute; halaber, kirurgia antikonzeptiborik jaso ez izana frogatu behar dute.

(iii) Emakumezko aseguratuak 42 urtez azpikoa behar du.

Kasu honetan, argi dago kontua ez dela osasun-arazo bat. Izan ere, aseguraturata ez da haurdun geratu, eta hori hala da, haren komunikaziotik eratorritik denez, ugaltzeko prozesu naturala saiatu ez duelako, askatasun osoz hartutako erabakiari jarraiki. Polizak antzutasunaren edo ugalkortasunik ezaren arriskua estaltzen du; prius hori agertzen ez bada, argi dago ez dagoela hura gauzaterik, ezta, horren ondorioz, ezbehar bat sortzerik ere.

Gainera, antzutasunarekin edo ugalkortasunik ezarekin zerikusia duen arazo bat egonik ere, gure estaldura gauzatu ahal izateko gutxienez bi aseguraturata behar dira, gabealdia gaitzuta izaki bikotea osatu behar dutenak, hitzaren zentzurik zabalenean, eta prestazioa batera eskatu behar dutenak.

Azken batean, beraz, argi dago salaketa aurkeztu duen emakumezko aseguraturata planteatutako kasua ezin zaiola sinatutako polizari lotu.

Klausula hori “diskriminatzailea” dela esatea —“bikotekiderik gabeko emakumea izateagatik estaldura ukatu zaiolako”— ezin onartuzkoa da.

Ukatzea ez da gertatzen, oraintxe ikusi dugun bezala, aseguraturata “bikotekiderik gabeko emakumea” delako, baizik eta antzutasunarekin edo ugalkortasunik ezarekin zerikusia duen arazorik ez duelako, horixe baita aseguraturata onartzen duen arriskua. Puntu honetan, azpimarratzekoa da arriskuak askatasunez hautatzeko printzipioa, aseguruaren merkaturako funtsezkoa den heinean.

Areago, aldeztu aurretik ikusi dugunez, aseguraturata antzutasunarekin edo ugalkortasunik ezarekin zerikusia duen arazoren bat izaki bikotekidea edukiko balu

ere, prestazioa ukatu egingo genioke estalduratik kanpo egoteagatik, baldin eta bikotekidea konpainiako aseguraturata ez balitz eta gabealdiak gaitzuta ez balitu.

Hau da, ez dago esaterik prestazioa “bikotekiderik ez izateagatik” ukatzen diogunik, baleuka ere ukatu egingo geniokeela aintzat hartuta, bikotekide hori ere konpainiako aseguraturata izan ezean”.

Laugarrena.- 2009ko martxoaren 9an, 119/2006 Dekretuaren 17. artikularen arabera, entzunaldiaren izapidea hasten da eta jakinarazten zaie IMQri eta _____ andreaki, egindako ikerketa-eginbideak jakin ahal izateko, eta ekartzeko, egokituz jotzen badute, kontuan hartu behar diren nahi adina alegazio, agiri edo beste elementu, Q/53/2008 zenbakidun espedientearen esleitzeko.

Bosgarrena.- 2009ko martxoaren 18an, _____ andreak eskatzen du bidaltzeko (e-mail bidez) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeak egindako ikerketa-eginbideak, Q/53/2008 zenbakidun espedientearen buruzko ikerketa-eginbideak, hain zuzen. Defentsa Erakundeak bidaltzen dio eskatutakoa.

Zuzenbideko Oinarriak

Lehenena.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako funtsezko eskubideari dagokionez.

Emakumeen eta gizonen berdintasuna giza eskubideei buruzko nazioarteko hainbat testutan onartutako printzipio juridiko unibertsala da. Testu horien artean, emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak desagerrarazteari buruzko Konbentzioa (hemendik aurrera, CEDAW) dago. Konbentzio hori Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartu zuen 1979. urteko abenduan eta Espainiak berretsi 1983. urtean.

Berdintasuna, halaber, Europar Batasuneko funtsezko printzipioa da. Amsterdameko Ituna indarrean jarri zenetik, hots, 1999ko maiatzaren 1etik aurrera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

desagerraraztea Europar Batasuneko eta horren kide direnen politika eta ekintza guztietan bildu behar diren helburuak dira.

1978. urteko Espainiako Konstituzioak 14. artikulua berdintasun-printzipioari eskaintzen dio, eta honako hau ezartzen du: *“Espainiarrak legearen arabera berdina dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta”*.

Emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren (hemendik aurrera 3/2007 Lege Organikoa) 4. artikulua honako hau ezartzen du: *“Emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna ordenamendu juridikoaren printzipio informatzailea da, eta, horregatik, arau juridikoak interpretatu eta aplikatzerakoan sartu eta kontuan hartuko da”*.

Bestalde, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak (aurrerantzean, 4/2005 Legea) mekanismo eta neurri zehatz batzuk planteatzen ditu, euskal herri-administrazioek eragin handiagoko politikak eta jardunak abiarazi ditzaten lortzeko, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren fenomenoaren egiturazkoa eta unibertsalgizartetik desagerrarazteari begira. Mekanismo horien artean Berdintasunerako Defentsa Erakundea sortu du, sexu-arrazoiengatik zuzeneko edo zeharkako diskriminazio-egoeren aurrean herritarrak defendatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa bete dadin sustatzeko organo gisa.

Kasu honetan, Berdintasunerako Defentsa Erakundeari dagokio IMQ sexu-arrazoiengatik diskriminazioan erori ote den aztertzea, urrezko polizaren aseguratuentzako laguntza bidezko ugalketaren prestazioa baliatzeko ezarritako baldintzetan.

Bigarrena.- Ondasunak eta zerbitzuak eskuratzekoan tratu-berdintasunari

dagokionez.

Azpirarratzekoa da *“arriskuak askatasunez askatzeko printzipioa”*, IMQk aurkeztutako alegazioek oinarritzat hartu dutena, konstituzio-ordenak eta indarreko legeriak ezar ditzaketen funtsezko eskubideek eta arauak mugatzen dutela, baita, kasu honetan, tratu-berdintasunerako funtsezko eskubideak ere. Horren haritik, 3/2007 Lege Organikoaren 69. artikulua honako hau ezartzen du: *“Sektore publikoan edo pribatuan jendearentzat ondasunak edo zerbitzuak hornitzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiek, horiek bizitza pribatuko eta familiako eremutik kanpo eskaintzerakoan, beren jardueretan eta dagozkien transakzioetan nahitaez emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa bete beharko dute, sexuagatiko zuzeneko edo zeharkako diskriminazioak saihestuz”*. Gainera, debekuak ez betetzearen ondorioak aipatzen ditu Lege horren 72. artikulua, eta, horren haritik, honako hau dio: *“legeria zibilean eta merkataritza-legerian jasota dauden ekintza eta eskubideak alde batera utzi gabe, 69. artikulua aplikazio-eremuan jokabide diskriminatzailea pairatzen duen pertsonak pairatutako kalte-galerengatik kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du”*.

Besteak beste, IMQk honako arrazoi hau eman du bere alegazio-idazkian, *“arriskuak askatasunez hautatzeko printzipioaren”* babesean: *“salaketa aurkeztu duen aseguratua ezin da sinatutako polizaren barnean sartu”*, lehen funtsezko baldintza - *“osasun-arazoa egon behar da, hau da, emakume aseguruaren haurdun geratzeko ezintasuna, haren edo haren bikotekidearen patologia dela medio gerta daitekeena”*- ez duelako betetzen, eta, horri dagokionez, honako hau adierazi du: *“aseguratu ez da haurdun geratu, eta hori hala da, haren komunikaziotik eratoritzen denez, ugaltzeko prozesu naturala saiatu ez duelako, askatasun osoz hartutako erabakiari jarraiki”*.

Alegazio horri dagokionez zera azpirarratu behar da, IMQk gezurrezko arrazoibide bat erabili duela, honako ondorio hau atera duelako: interesdunak, bikotekiderik izan gabe laguntza bidezko ugalketa baliatu nahi



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

duenez, ez du bikotekidearekin ageriko litzatekeen beste onuradun baten pareko arazorik. Hau da, IMQk ezin du baieztatu prestazioa antzutasun-arazoak dituzten emakumeei soilik eskaintzen zaionik, argi dagoelako hazi-jartzea, eta, oro har, laguntza bidezko ugalketa-teknikak baliatzeko baldintza ez dagokiola emakumearen ugalkortasunik ezari edo antzutasunari, kasu askotan prestazio hori emakume ugalkorrei eskaintzen zaielako, hala eta guztiz ere arrazoi idiopatikoa direla-eta edo gizonezkoekin zerikusia duten arrazoiengatik haurdun geratu ez direnak (eta, interesdunaren kasuan, ez dago kasu hori uka lezakeen frogarik).

“Arriskuak askatasunez hartzeko printzipioari” arraiki, bikoteko bi kideek aseguratuta behar dutelako baldintza onartzekoa litzateke, baldin eta biek “laguntza bidezko ugalketa”-tratamenduan parte hartuko balute. Ugaltzeko erabaki indibidualaren kasuan, ordea, arrazoibide hori ezin da baliagarritzat hartu.

Horregatik, 2004/113/EE Zuzentarauaren 10. xedapena (*“Arazo bereziki nabariak daude ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko eta hornitzeko sektorean”*) aintzat hartuta, planteatu beharko litzateke IMQk, emakume batek laguntza bidezko ugalketaren prestazioa baliatzeko aseguramendu bikoitza eskatzean, 3/2007 Lege Organikoaren 71. artikulua (*“debekatuta dago aseguru-kontraturik egitea (...), baldin eta, sexua primak eta prestazioak kalkulatzeko oinarritzat harturik, aseguratuen prima eta prestazioetan aldeak sortzen badira”*) urratzen ari ote den. Halaber, IMQ berdintasunerako funtsezko eskubidea mugatzen ari ote den planteatu liteke, interesduna bere ugalketa-osasunarekin zerikusia duen bizi-erabaki hori bikotekide batekin batera hartzea behartzen duela aintzat hartuta.

Hirugarrena.-Ugalketa-osasunaren eskubideari dagokionez.

Ugaltzeko eskubidea, sortu berria dena, indar handiz ageri da, norberaren biziexistentziaren gaineko erabakiak hartzeko eskubidearen funtsezko zatia den aldetik. Europako hainbat herritako hainbat etika-batzordek, nazioarteko

erakundek eta sektore-legeriak giza bizitzaren aurkikuntza zientifikoaren inplikazio moral eta juridikoaren inguruan berriki hartutako erabakiek berretsi egin dute azkenaldian ugaltzeko eskubide subjektiboa. Gai horiek guztiak norberaren bizitzari buruzko erabakitza jotzen dira gaur egun, eta ugalketak toki bat dauka haien artean.

1994an Kairon egindako Biztanleriari buruzko Mundu Konferentziaren Ekintza programa onartu eta 1995ean Beijingen egindako Emakumearen Eskubideei buruzko Ekintza Plataforma eratu ondoren itxuratzen hasi zen ugalketa-osasunerako eskubidea nazioarteko eskubide gisa. Konferentzia horietan, berdintasun-politikak demografi a-politikekin berdintzea kritikatu zuten, familia-plangintzarako eskubidea biztanleriaren hazkundearen kontrolaren zerbitzuan jartzen ari zela egotzita, eta, kritika horri esker, giza eskubide indibidualen gaineko bermea indartu da.

Hala, Kairoko Konferentziako Ekintza Programak (UN, Doc. A/CONF. 171/13, § 1.15.) honela defini zuen ugalketa-osasunaren kontzeptua *“erabateko ongizate fi sikoko, mentaleko eta sozialeko egoera, ugalketa sistemarekin eta sistema horren funtzio eta prozesuekin zerikusia duen gaixotasunik eza ez ezik, honako hauek ere biltzen dituena: ugalkortasunik ezaren prebentzioa eta tratamendua; seme-alabak eduki nahi diren edo ez, eta non eta zer maiztasunez eduki nahi diren erabakitzeko askatasuna; nahigabeko eta garaiz kanpoko haurduntzaren prebentzioa; eta emakumeen aurkako sexu-indarkeria orotik babestea”*.

Urtebete geroago, Emakumeari buruzko laugarren Mundu Konferentziak eta haren Ekintza Plataformak ugalketa-osasunaren testuinguruan kokatu zituzten berri ere familia-plangintzarako eta ugalkortasunaren erregulaziorako eskubideak. Beijingo Deklarazioaren arabera (UN, Doc. A/CONF. 177/20, § 94): *“Ugalketa-osasunak zera esan nahi du, batetik, pertsonek sexu-bizitza egokia eta segurua edukitzeko aukera izatea, eta, bestetik, nahi duten moduan eta tokian ugaltzeko aukera izatea. Esan gabe doa emakumeek eta gizonek emakumeek eta*



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

gizonek informazioa jasotzeko eta familia-plangintzako metodo seguruak, eraginkorrak eta merkeak eskuratzeko eskubidea dutela, baita ugalkortasuna erregulatzeko nahiago dituzten metodoak eskuratzeko eskubidea ere, betiere legezkoak badira. Halaber, osasun-zerbitzu egokiak lortzeko eskubidea dute emakumeek, haurdunaldia eta erditzea segurtasunez burutu ahal izateko, seme edo alaba osasuntsu bat edukitzeko ahalik eta baldintzarik onenetan”.

Beijingeko Konferentzian parte hartu zuten 185 estatuek onartutako Ekintza Plataformaren 94. paragrafoak honela dio: *“Ugalketa-eskubideak giza eskubide jakin batzuk dira, antolamendu juridiko nazionaletan, giza eskubideei buruzko nazioarteko itunetan eta adostutako beste hainbat dokumentutan dagoeneko onartu direnak. Eskubide horien oinarrian honako funtsezko eskubide honen onarpena dago: bikote edo pertsona orok seme-alaben kopurua eta seme-alabak edukitzeko maiztasuna askatasunez eta arduraz erabakitze eskubidea du, baita hori lortzeko informazioa eta baliabideak jasotzeko eta sexu- eta ugalketa-osasunari dagokionez ahalik eta mailarik handiena lortzeko eskubidea ere. Diskriminaziorik, hertsadurarik edo indarkeriarik pairatu gabe, norberaren ugalketaren inguruan erabakiak hartzeko eskubidea ere hartzen du aintzat, giza eskubideei buruzko dokumentuetan onartzen denez”.*

CEDAW, nazioartean sinatutako itun loteslea den aldetik, nazioarteko zuzenbideiturri seguruago eta kontsolidatuagoa da, eta erabakitze eskubidea zehazten du, munduko herrialde askotan erabaki horiek testuinguru sozial eta kultur diskriminatzailetik hartzen direla aintzat hartuta, eta zera onartzen du, ugalketa-erabakiak askatasunez hartu aurretik, emakumeen eta gizonen berdintasun sozialerako baldintzak bete behar direla. Horren ildotik, 16. 1(e) artikuluan honela dio: *“Estatu kideek neurri egokiak hartuko dituzte emakumearen aurkako diskriminazioa ezabatzeko ezkontzarekin eta familia-harremanekin zerikusia duten gaitetan, eta, bereziki, honako hauek ziurtatuko dituzte emakumeen eta gizonen berdintasun-*

baldintzetan: ...seme-alaben kopurua eta jaiotzen arteko tartea askatasunez eta arduraz erabakitze eskubideak, eta eskubide horiek gauzatu ahal izateko informazioa, hezkuntza eta baliabideak jasotzeko eskubidea”.

Hala, CEDAW itunaren 21. Gomendio Nagusiak (22. paragrafoa) honako hau dio ugalketa-osasunerako eskubide indibidualaren inguruan: *“...seme-alabak edukitzeko erabakiak, ahal dela ezkontideari edo lagunari kontsulta egin ondoren hartu behar bada ere, ez du zertan ezkontideak, aitak, lagunak edo gobernuak mugatuta egon behar”.*

Hortaz, gaur egungo antolamendu juridikoari jarraiki, norberaren ugalketaren inguruko erabakiak hartzeko eskubide hori, haren bizitza zuzentzeko gai den gaur egungo gizaki askearen berezkoa dena, bakarrik egonik laguntza bidezko ugalketa-metodoetara jotzen duen emakume baten eskubide indibidualari aplikatu ote dakioken aztertu behar da.

Laugarrena.- Bakarrik dagoen emakumeak laguntza bidezko ugalketa jasotzeko duen eskubideari dagokionez.

Zuzenbide erkatuaren eremuan, Europako antolamenduek erantzun desberdinak eman dituzte emandako gametoak bakarrik dauden emakumeen eskura jarri behar ote diren aztertu denean. Ingalaterrako eta Espainiako antolamenduak ugaltu nahi duten emakume guztien eskura jarri dituzte hazieta obulu-bankuak. Kanadan, laguntza bidezko ugalketa-teknikak eskuratzeari dagokionez *ad hoc* erregulaziorik ez dagoenez, zenbaitek auzitegi-tara jo dute babes bila, eta *Korn v. Potter* kasua da guztietan oihartzun handiena izan duena: Beste emakume batekin bizi den emakume batek emailedun hazi-jartzea eskatu zuen, baina bankuak ukatu zion. Auzitegiak, ordea, erabaki hori baliogabetu zuen, sexu-joeren arazoengatik diskriminaziorik ezari buruzko Legearen aurkakoa zela ebatzi zuelako.

Espanian, Laguntza bidezko Giza Ugalketako Teknikeri buruzko 35/1988 Legearen bitartez arautu zen lehen aldiz laguntza bidezko



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

ugalketa, European arau aitzindaria izan zena -berriki Laguntza Bidezko Giza Ugalketako Teknikai buruzko maiatzaren 26ko 14/2006 Legeak aldatu du (hemendik aurrera, LUTL)-. Konstituzio Auzitegian errekurritu zuten lege horrek hazi-jartzea eskatzeko aukera ematen die bikotekiderik ez duten emakumeei, baita emakume homosexualei ere, honako hau ezartzen duelako 6.1 artikuluan: *“emakume oro izan daiteke Lege honetan araututako tekniken hartzaile edo erabiltzaile”*.

Laguntza bidezko ugalketa-prestazioa baliatzeko IMQren urrezko polizaren baldintzei dagokien aurkeztutako kekax honako hau ebaztea eskatzen du: hirugarren baten ugalketa-zelulen bitartez ugalduta nahi duen emakumeak nahitaez ezkontuta egon behar duen (edo nahitaez bikotekidea eduki behar duen).

116/1999 Epaia bidez, Konstituzio Auzitegiak konstituzio kontraktasun-errekurtsoa ebatzi zuen, eta errekurtsogileen argudioak ezetsi zituen, baita LUTLaren 6. artikulua kentzeko eskaera ezetsi ere. Auzitegiak, horren haritik, familia modalitateen aniztasunari buruz duen doktrina ekarri nahi izan du gogora, Konstituzioak onartutakoa, errekurtsogileen baieztapenaren -ezkontza heterosexualean oinarritutako taldeak baino ez ditu babestu behar Goreneko Arauak-aurka, *“familia modalitate hori gure kulturaren oso sustraitua egonik ere”*.

Hala, indarreko LUTLak berriz ere azpimarratzen du bakarrik dagoen emakumeak laguntza bidezko ugalketa jasotzeko eskubidea duela, eta argi eta garbi adierazten du emakume lesbianak ere eskubide horren onuradun izan daitezkeela. Izan ere, 6. artikuluan honela dio 1. *“18 urtez gorakoa den eta jarduteko osoko ahalmena duen emakume oro izan daiteke Lege honetan araututako tekniken hartzaile edo erabiltzaile, betiere alde aurretik erabiltzeko baimen idatzia aurkeztu badu, askatasunez, kontzienteki eta esanbidez. Emakume oro izan daiteke Lege honetan araututako tekniken erabiltzaile edo hartzaile, haren egoera zibila eta sexu-joera edozein izanik ere”*.

LUTLaren zioen azalpenean onartu zenez, Espainian laguntza bidezko ugalketa-teknikak izugarri garatu dira, eremu pribatuan bereziki. Haatik, bakarrik dagoen emakumeak laguntza bidezko ugalketa jasotzeko duen eskubidearen lege-onarpenarekin bat etorrituz, Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzu komunetan Zorroa ezartzen duen irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuak Autonomia Erkidegoetako osasun-sistema publikoak behartzen ditu zerbitzu-zorroan honako prestazio hau sartzera: bikotekiderik gabeko emakumeentzako hazi-jartzea, emailearen hazia baliatuta. Horren ondorioz, Espainiako osasun-sare publikoko ospitaleek emailearen hazi-jartzea eskaintzen diete gaur egun bikotekidea duten emakumeei, bakarrik dauden emakumeei eta lesbianeiei, aseguratutako prestazio gisa eta itxaron-zerrenden kudeaketatik eratorritako muga bakarrekin, baina eskaeretan inolako diskriminaziorik egin gabe pazienteen egoera zibilaren edo sexu-joeraren arabera.

Hortik honako ondorio hau ateratzen da: LUTLak laguntza bidezko teknikak baliatzeko eskubidea onartzen dio bakarrik dagoen emakumeari, eta, hori ez ezik, Lege horrek ezarritako *“tekniken erabiltzaileen”* definizioan, teknika horiek emakumeek bakarrik eskura ditzaketela ematen da aditzera. Gizonezkoek ere erabil ditzakete teknika horiek, ondorengo seme-alabatasunean eragina duten neurrian, 6.3 artikuluan jaso denaren arabera: *“Emakumea ezkontuta badago, senarraren baimena ere behar du, legez edo izatez bananduta egonik hori behar bezala egiaztatzen badute”*.

Bosgarrena.- IMQ aseguratzaileak laguntza bidezko ugalketa-prestaziorako ezarritako baldintzetan ageri den sexu-arrazoiengatikoko diskriminazioari dagokionez.

“Sexu-arrazoiengatikoko diskriminaziotzat hartzen da pertsona bat, sexuaren zioz eta alderatzeko moduko egoeretan, beste pertsona bat baino modu txarragoan tratatu izana edo tratatzeko aukera izatea” (3/2007 Lege Organikoaren 6. artikulua).

Kasu honetan, zaila da emakumearen eta gizonaren artean bereizketa egitea; izan ere,



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

alde biologikoak direla-eta, gaur egun emakumeak bakarrik dira ugaltzeko gauza, dela bakarrik, hazi-jartzearen bitartez, dela bikotekidearekin. Haatik, kasu honetan emakumeen eta gizonen arteko simetria bilatu nahiak bereizketarik ezarengatiko diskriminaziora darama. Hain zuzen ere, 3/2007 Lege Organikoak diskriminaziotik babesten ditu egoera horiek, honako hau adierazten duenean *“emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioak sexu-arrazoiengatiko edo sexuarekin zerikusia duen beste edozein zirkunstantzia pertsonal do sozialarengatiko diskriminazio oro (zuzena edo zeharkakoa) ezabatzea dakar, eta bereziki amatasunari, familia-betebeharrak hartzeari, ezkontza- edo familiaegoerari eta diskriminazio anitza dakarten bestelako alderdiei (ezintasuna, esaterako) dagokienez”*.

Seigarrena.- Aseguru-sektoreko erabiltzaileen babes-eskubideei dagokienez. Aseguru-sektoreko kontsumitzaile eta erabiltzaileak babesteko eskubideak eta erreklamazioak kontrolatzeko, ikuskatzeko eta ebazteko administrazio-mekanismoak Aseguru Pribatuen Antolamenduari eta Ikuskapenari buruzko azaroaren 8ko 30/1995 Legean jaso dira, eta Aseguruaren Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legeak eta Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina onartzen duen azaroaren 16ko 1/2007 Legegintza Dekretuak arautzen dituzte.

Alabaina, zenbait printzipio -enpresa-askatasuna eta kontsumitzaileen berdintasuna eta babesa, esaterako-bateraezinak dira batzuetan. Aseguruaren Kontratuari buruzko Legearen 3. artikulua klausula kaltegarriak debekatzen ditu, eta zera agintzen du, klausula murriztaileak, *“hasiera batean kontratatutako estaldura murrizten edo mugatzen dutenak”* polizan esanbidez nabarmentzea eta aseguru-hartzaileak berriaz sinatuta egotea, ezagutu eta onartu dituelako froga gisa. Horren haritik, horrelako klausula murriztaileetarako, kontratuaren amaierako sinadura orokorra ez da baliagarria, eta aseguratzailak klausula horiek bete ez dituelako interesdunak

auzitegietara jotzen badu, Aseguruaren Kontratuari buruzko Legea lotzen zaion Kontratazioaren Baldintza Orokorrei buruzko 7/1998 Legea, autoen kasuan aplikagarria dena, aplikatuko zaie klausula horiei, hau da, klausula murriztaileak esanbidez onartzen ez badira, ez sinatutakotzat jotzen dira, eta ez dute ondoriorik kontratu horretan.

Kaltegarriak, berriz, baliogabeak dira eta ez dira aplikatzen. Horren haritik, testu bategin berriaren 86. artikulua, 7/1998 Legearen lehen xedapen gehigarriak bezalaxe, honako hau ezartzen du: *“Edozein kasutan, kontsumitzaileari eta erabiltzaileari xedapenezko edo aginduzko arauak onartutako eskubideak mugatzen dizkieten klausulak abusuzkoak izango dira, eta bereziki honako hauek aurreikusten dituzten xedapenak:*

1. *Kontsumitzailearen eta erabiltzailearen lege-eskubideak behar ez bezala kentzea edo mugatzea, enpresaburuak guztiz edo partzialki ez betetzeagatik edo gaizki betetzeagatik.*

Bereziki, honako klausula hauek: kontsumitzailearen eta erabiltzailearen kaltetan, haren esku utzitako ondasun edo zerbitzuen kontratuarekiko onespeneri buruzko lege-arauak aldarazten dituztenak, edo onespenerik eza horrek eragindako kalte-galarengatiko kalte-ordaina jasotzeko kontsumitzaileak eta erabiltzaileak duen eskubidea mugatzen dutenak.

2. *Kontratua betetzean enpresaburuaren erantzukizuna kentzea edo mugatzea, hain zuzen ere haren egintza edo ez-egite batek kontsumitzaileari eta erabiltzaileari eragindako kalteengatik, heriotzarengatik edo lesioengatik enpresaburuari legokiokeen erantzukizuna.*

3. *Zordunaren baimenik gabe, enpresaburuak hirugarren bati kontratua lagatzeagatik erantzukizunetik salbuestea, baldin eta horrek zordunaren bermeak murriztea ekar badezake berekin.*

4. *Kontsumitzaileari eta erabiltzaileari kreditu-kontsignazioko, atxikipeneko edo kontsignazioko gaitasunak kentzea edo murriztea.*

5. *Kontsumitzaileari eta erabiltzaileari, enpresaburuak ez betetzeagatik kontratua suntsiarazteko gaitasuna mugatzea edo*



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

kentzea.

6. Eragiketaren egiaztagiria emateko ukoak ezartzea.

7. Kontsumitzailearen eta erabiltzailearen eskubideei beste edozein uko edo muga ezartzea”.

Bestetik, Kontratazioaren Baldintza Orokorrei buruzko araua kontratuaren klausula ilunen exegesiari dagokio, betiere aseguruaren aldekoa behar duena. 6. artikuluan, interpretazio-arauak adierazi dira:

1. *Baldintza orokorrak eta kontratu horretarako berariaz aurreikusitako baldintza partikularrak bat ez badatoz, azken horiei lehentasuna emango zaie besteen aldean, salbu eta aseguruarentzat baldintza orokorrak partikularrak baino onuragarriagoak badira.*

2. *Baldintza orokor ilunen inguruan sortzen diren zalantzak aseguruaren alde ebatziko dira. Kontsumitzaileekiko kontratuetan, ekintza indibidualak gauzatzen direnean bakarrik aplikatuko da interpretazio-arau hori.*

3. *Artikulu honetan ezarritakoa eta hartan jaso ez dena alde batera utzi gabe, kontratuen interpretazioari buruz Kode Zibilean jasotako xedapenak aplikatuko dira”.*

Jurisprudentziak jardunbide hori babesten du, baita laguntza bidezko ugalketa-prestazioen kasuan ere. Leongo Probintzia Auzitegiko 318/05 Epaiak eztabaidatu egin du hark sinatutako gaixotasun-aseguruaren estaldurak emakumearen gainean egindako in vitro ernalketa estaltzen ote duen, eta honako hau adierazi du: *“Hala, Goi-mailako Arkitektoen Prestazio Sistemaren Erregelamenduan, kasu honetan aplikagarria dena, demandatzailea arkitektoa denez, antzutasun- tratamenduak hartzen dira estalduraren barnean, aseguruari emakumea izateko baldintza ezarri gabe, eta beraz, jakina denez, kontratua baten (aseguru bat, kasu honetan) klausulen interpretaziori buruzko auzi batean gaudenez, Kode Zibilearen 1.281. artikulua eta ondorengoak hartu behar dira aintzat. Horren arabera, kontratu baten klausula ilunen interpretazioa ezin da iluntasuna eragin duen alderdiaren aldekoa izan, eta agindu hori bereziki garrantzitsua da aseguru-kontratuetan, atxikipen-kontratuak izaki,*

aseguratzaileak alde zehazten dituelako baldintzak, aseguruaren eginkizuna kontratua sinatzera mugatuz, kontratua egiterakoan inolako esku-hartzerik ez duela aintzat hartuta. Hori auto-kasuari aplikatu dakioke, horrelako kontratuetan, jurisprudentziak behin eta berriz agindu duenez, aseguruaren printzipioa ezarri behar dela aintzat hartuta. Horren arabera, zalantzazko kasuetan, exegesia aseguruaren aldekoa izango da betiere, eta zalantzazko klausulak ezin izango dira onuragarri izan iluntasuna eragin duenarentzat”.

Azkenik, gogoratzekoa da eskumeneko Auzitegiak abusuzkotzat jotako klausula orokorrak inskribatu egingo direla Baldintza Orokorren Erregistroan, eta beste ezein aseguru-konpainiak ezin izango dituela baliatu.

113/2004 Zuzentarauaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioak honako hau eskatzen du: *“sexu-arrazoiengatik zuzeneko diskriminaziorik ez da egingo, haurduntza- eta amatasun-arrazoiengatik emakumei tratu txarragoa ematea, esaterako”.*

Horregatik, honako ondorio hau atera dezakegu: aztertutako aseguramendu bikoitzaren teknikak urratu egiten du tratu-berdintasunaren printzipioa eta diskriminazioan erortzen da, honako hauek aintzat hartuta:

1. Berdintasunerako funtsezko eskubidea mugatzen du, emakumea behartzen duelako ugaltzeko bizi-erabakia bikotekidearekin gauzatzera, kontratatutako polizaren laguntza bidezko ugalketa-prestazioan, nahiz eta laguntza bidezko ugalketari buruzko legeria espezifikoak bakarrik dauden emakumei zein bikotekidea dutenei onartzen dien teknika horien onuradun izateko eskubidea. IMQk hori onartzen du, honako hau adierazi baitu: *“Gainera, antzutasunarekin edo ugalkortasunarekin ezarekin zerikusia duen arazo bat egonik ere, gure estaldura gauzatu ahal izateko gutxienez bi aseguru behar dira, gabealdia gaindituta izaki bikotea osatu behar dutenak, hitzaren zentzurik zabalenean, eta prestazioa batera eskatu behar dutenak”.*



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

Hau da, emakumea antzua izanik ere prestazio hori ukatuko diote, baldin eta konpainia berean aseguraturako bikotekiderik ez badu.

2. Zuzeneko diskriminazioan erortzen da aseguramendu bikoitza eskatzen duelako 3/2007 Lege Organikoak esanbidez debekatutako alderdi batean, onuradunen sexu biologikoarekin eta haurduntzarekin soilik zerikusia duen alderdi baterako prima handiagoak aplikatzen dituelako, ezkutuan gainera, Lege horren 71. artikuluari jarraiki.

3. Klausula deuseza da, sexu-arrazoiengatik diskriminazio-debekuaren printzipioa urratzen duelako, Aseguruaren Kontratuari buruzko Legearen 3. artikulua eta Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren testu bateginaren 86. artikulua araber.

Ebazpena

Lehen.- Q/53/2008 zenbakiko kerketaespeditentean egindako jardunei jarraiki, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako defendatzaileak uste du Aseguru eta Berraseguruen Igualatorio Médico Quirúrgico SAK emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa urratzen duela eta zuzeneko diskriminazioan erortzen dela, urrezko polizaren 2008ko baldintza orokorretan laguntza bidezko ugalketari buruz bildutako klausulan, bikotekiderik gabeko aseguratu bati prestazioa ukatzen diolako.

Bigarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako defendatzaileak honako gomendio hauek eman ditu:

1.MQren Urrezko Polizan ageri den laguntza bidezko ugalketa-prestazioari buruz aztertutako klausula deuseza dela ebaztea, eta Kontratazioaren Baldintza Orokorren Erregistroan inskribatzea, baldintza hori ezabatzeko hura jasotzen duten kontratu guztietatik.

2. IMQren polizaren baldintza orokorretan, laguntza bidezko prestazioari dagokion klausula aldatzea, aseguramendu bikoitzaren betekizuna kenduz eta bikotekidea duten edo ez duten emakumeak onuradunak direla

onartuz.

3. IMQk bikotekiderik gabeko laguntza bidezko ugalketaren prestazioari emandako ukoaren ondorioz _____ andreak pairatutako kalte-galera posibleak aintzat hartzea, 3/2007 Lege Organikoaren 72. artikuluan jasotako kalte-ordaina jasotzeko aukera izan dezan.